

Hizkuntza biziberritzeko nahi bat bera, Libiako amazigek nahiz Siriako kurduak

Hizkuntza tipologiaz ez baina amazigerak eta kurduerak bizi duten prozesu simetrikoaz jardun du Karlos Zurutuza kazetariak: "Prozesu polit eta bitxi baten lekuko izan naiz. Egun batetik bestera, eta literala da hori, bi komunitateok euren hizkuntzei eusteko hartu duten erabakiaren lekuko izan naiz. Hamarkada askotan galdutako denbora berreskuratu nahian ari direla ikusi ahal izan dut".

 MIEL A. ELUSTONDO  KARLOS ZURUTUZA

Hitz Adina Mintzo hizkuntza gutxi-tuak ezagutzeko zikloa Oihaneder Euskararen Etxeak eta UEUK antolatzen dute. Seigarren zikloan, urriaren 14an, Gasteizen, Karlos Zurutuza kazetariak eskaini zuen hitzaldia, *Hitzaren jabea, amazigera eta kurduera biziberritzeko prozesuak* lemapean.

KURMANJIERA, DEUSETIK UNIBERTSITATERAINO

Ekialde Hurbilaren erdian dira kurduak, Iran, Irak, Siria eta Turkiako mugen banaturik bizi direla. Kurduerak Siriako ipar-ekialdean du indar handiena. Haatik, Siriak kurduetik zein politika ibili duen erakusteko, siriar zerbitzu sekretuetako burukide baten txostenaren muina baliatu zuen Zurutuzak: "Kurduak tumore hutsa dira, ez dira arabiarrek, erauzi egin behar da [tumorea]". Txosten horrexek markatu zuen errepresioa: kurduak erroldatik ezabatzea, hiritartasuna ukatzea, ez pasaporterik ez nortasun agiririk ematea. "Kurduen existentzia ukatzea zen, finean". Kazetariak 2008an egin zuen lehen bidaia Siriako kurduen lurretara. Hitz batez adierazi zuen egoera: "Jendea beldurrez bizi zen. Kurmanjieraz idazten zuen poeta bat elkarriketatu nahi izan nuen, klandestinoki, zeren bere hizkuntzan idaztea, kurmanjieraz, delitu zuen".

2011n iraultza gertatu zen Sirian. Siriako kurduen alderdi politikoak klandestinitatetik argitara ateratzen ikusi zuen, emakumeentzako zentroak asmatzen, kurduerazko lehen eskolak irekitzen. "Boluntarioak ari ziren langile, eta, lehen aldiz, kurmanjieraz ikasten zen ikasgela bat ireki zuten. Momentu itzela izan zen. Iraultza garaia zen, gerra zen, baina kurduak ez ziren, bakarrik, arma bidez borrokatzen ari, atzeguardian gizarte zibila plazara ateratzen eta horrela ireki zuten, adibidez, kurduerazko eskola".

Egun, 40 milioitsu ei dira kurduak. Kurmanjiera, aldiz, erdiek hitz egiten dute. Kurdueraren aldaera nagusiei den bezainbatean, Turkian eta Sirian kurmanjiera da nagusi, eta alfabeto latinoz idazten da. Soraniera, berriz, arabiar alfabetoz idazten da, eta Iraken eta Iranen hitz egiten da, bateko eta besteko aldaerak gorabehera. "Siriako kurdu gehienek kurmanjieraz egiten zuten, baina ez zekiten idazten, ez baitzuten alfabetoa ezagutzen. Eskoletan, beraz, alfabeto hura ikasten jarduten zuten, kurmanjieraz idazten ikasteko".


Gizarte zibila aktibatu zela esan zuen Zurutuzak bere hitzaldian, eta eskola ez ezik, "Siriako inoizko lehen egunkari kurdua ere egin zuten, elebiduna, arabieraz eta kurmanjieraz". Eta Zurutuzaren irudiko, "sen onez" da elebiduna egunkaria:

"Hainbat urtez, arabiera beste hizkuntza ofizialik izan ez dutenez, ez zuten akats bera egin nahi, beren hizkuntza inori inposatuz eta gainerakoak desagerraraziz. Kurmanjieraren aldeko dira eta, era berean, arabieraren eta siriakoaren edo neo-arameoaren aldeko. Beren argitalpenak hirueledunak ohi dira, eta telebistan ere aipatu hiru eleetan aritzen dira". 2014an, Siriako Rojavako parlamentuak herri kurduaren konstituzio gisakoa egin zuelarik, hiru hizkuntzak izendatu zituzten ofizial, hiru eskualdeetan ere.

2016an, kurduak unibertsitatea erai-ki zuten. Esaterako, Kurduera Filologia, Arte Ederrak eta Ingeniaritza Agronomoa irakasten zituzten, kurdueraz erabat: "Turkiarrek Afringo eskualdea inbaditu eta campusa desagerrarazi zuten arte iraun zuen hark. Eta, egun, Turkiak ordaindutako islamisten eskuetan dago eremu hori".

AMAZIGERA, DENBORA BERRESKURATZEKO GARAIA

2011n heldu zen lehen bider Zurutuza Libiara. Kazetari tropela zen han, Egiptotik Libiara sartu nahirik. "Ni, berriz, Tunisiatik sartu nintzen. Eta, nahigabe eta ezustean, berbereekin egin nuen topo, amazigekin!". Laster jabetu zen Zurutuza amazigek Gadafiren azpian bizi izan zuten egoeraz. Hasteko, arabiarra ez den herriak izateko eskubiderik ez



ARGAZKI HANDIAN ROJAVAKO UNIBERTSITATEKO AULA MAGNA. 2016AN ERAIKI ZUTEN KURDUK CAMPUSA ETA TURKIARREK AFRINGO ESKUALDEA INBADITU ZUTENEAN DESAGERRARAZI ZUTEN. ARGAZKI TXIKIAN, LIBIAN BIZI DIREN AMAZIGEK AMAZIGERAZ SORTUTAKO IKASMATERIALA.

zuen Gadafiren garaian. Amazigera ere, dialektotzat zeukan Gadafik. “1973an abiarazitako Iraultza berdea medio, Gadafik amazig kultur adierazpen oro deuseztatu behar zela erabaki zuen. Lege idatzia zen”.

Sei milioi biztanle dira Libian, eta horietarik %10 dira amazigak. Itsasaldean, Zwara hirian, esaterako, amazig peto-petoak dira eta amazigeraz egiten dute. Mendietan, Nafusa eskualdea dugu, non herri gehienak amazigak baitira. Badira tuaregak ere, amazig familia handiaren barruan tamaxek aldaeraz hitz egiten dutenak. Azkenik, tubuak, herri nilo-sahararra. Hizkuntza biziberritzen saiatzen ari dira denak.

2011n, Libian gerra hasi zelarik, laster jabetu ziren amazigak: alde batean, arabiar nazionalistak zituzten, eta, bestean, islamistak. Gadafiren kontrako altxamenduekin bat egin zuten amazigek hasieran, baina laster etsi zuten, gerra bitartean eratu zen Trantsizio Gobernuaren joerari igarririk: “Betiko diskurtsoa dute: izan arabiar nazionalista, izan islamista, ez dute gure alde egiteko xederik”, erabaki zuten, Zurutuzak esan zuenez.

Gerra garaian, bonbardatzeek eragin-dako anabasa artean, amazigera eskolak eratu zituzten mendialdean, beren lemarri jarraikiz: “Hizkuntza, izakia eta lurraldea. Hastapenean ez zuten ikas-mate-

rialik, fotokopia batzuk baino ez, nahiz gaur egun ganorazko liburuak dituzten. Gerra garai hartan, amazigera idazten ikastearekin batera, neska-mutilak eskolan zeuzkaten, babesean! Gerran ziren, eta amazigera eskolak ematen! Kurduak bezala, amazigek ere galdutako denbora berreskuratu nahi zuten”. Eskola haiek eratzearekin batera, lehen amazigera irratsaio eta telebista saioak abiarazi zituzten. 2017an urrats bat handiagoa emanik, Tamazig Filologia ikasketak abiarazi zituzten Zwara eskualdean.

Zurutuzaren arabera, korapilo bihurria da Libia: bi gobernu dirateke, bata ekialdean, bestea mendebaldean, zein bere sostenguekin ari dena. Gerrak, berri, ez du etenik: noiz indar handiagoz, noiz txikiagoz, hor da beti. Zeharo ezegonkorra da egoera eta, hala ere: “Kontseilu Gorena eratu dute amazigek, beren administrazioa; hamar udalerri biltzen ditu. Kurduak bezala, bereari eustea erabaki zuten, Libiako egoerak konponbide eskasa du eta, bitartean, antolatzea erabaki dute: eskolak, kultur etxeak, indar armatuak eta gainerakoak osatu dituzte”.

Bestelako gutxiengorik ere bada Libian, ordea, eta haiek ere aipatu zituen Zurutuzak: Tubu herria, “Gadafiren pean, ikaragarri sufritu zuena”. Han eta hemen barreiatu bizi dira tubuak, Niger, Txad eta Libiako mugen artean.

Tubuak hizkuntza biziberritzeko lanari ekin zioten 2011n eta, horretan, amazigen laguntza jaso zuten, amazigak jabeturik baitira gutxiengoak batu beste biderik ez dela Libian. “Tubu kontseilu sendo bat eratzea, hortaz, amazigen onerako zitekeen. ‘Bakarrik gaude, bata besteari lagundu beharrean gara’, esan zioten elkarri. Amazigek, eskola abiarazten eta liburuak argitaratzen lagundu zieten eta, horrela, lehen aldiz, tubu haurrek beren hizkuntzan ikas dezakete”.

Saioa burutuz, Karlos Zurutuzak azpimarratu nahi izan zuenez, hala Libian nola Sirian, baitezpadakoa izan da jendearen kemena hizkuntza biziberritzeko prozesuari ekiteko garaian. “Niretzat, hango egoera, sasoi batean Euskal Herrian ikastolekin bizi izan genuena bizi-zaia izan da. Irakasleek egiten zuten ikas-material hura-eta! Prozesu nahiko simetrikoak ikusi ditut Libian, Sirian eta hemen. Francok 40 urtez agindu zuen Euskal Herrian, eta Gadafik 42 Libian! Bitartean, guztiz zapalduta egon dira hizkuntza horiek”. Hori esanik, azken mezua zabaldu nahi izan zuen Zurutuzak: “Munduan diren hizkuntza gutxi-tuak, aniztasunaren aldarri dira. Ekialde Hurbila anitza da, mapan ageri diren herrialdeen barruko herriak ezagutzen ez baditugu, nekez ulertuko dugu gertatzen ari dena. Aniztasuna da gakoa”. ●